


ibaizabal



Maitasun sua

AITOR ARANA

kin

Miren González - Marina Yáñez

Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

Aitor Arana	2
Sarrera	2
<i>Maitasun sua</i>	
• Kokapena	3
• Gaia	4
• Argumentua	4
• Gertakizun nagusiak	4
• Egituraketa	6
• Pertsonaiak	6
• Baliabideak	8
• Iritzia	10
Bibliografia eta webgrafia	12

Aitor Arana

Aitor Arana Legazpin (Gipuzkoa) jaio zen 1963ko abenduaren 21ean. 17 urterekin hasi zen idazten. Lau urtez (1983 - 1987) euskara irakaslea izan zen Legazpio AEKn eta Udal Euskaltegian. Sei urtez Legazpiko HOTS kultur aldizkariko lankidea izan zen eta geroago arduraduna bilakatu zen. Gainera, XUT literatur aldizkariko lankide eta arduraduna izan da.



Gazteentzako liburu asko idatzi ditu. Lehenengoa *Azkonarren laguna* (1987). Geroago, *Loaren bidez* (1990), *Gaueko ortzadarra* (1997), *Herrauskorritse* (1998) eta *Irunberriko sorginak* (2003) idatzi zituen, beste askoren artean. Gehienetan abenturazko liburuak idatzi ditu, askotan fantastikoak.

Gazteentzako liburuak egiteaz gain, helduentzako liburuak idatzi ditu. 1994an *Ipuin Lizuna* publikatu zuen, zenbait ipuin erotikoen bilduma. 2000n, *Onan* publikatu zuen *Literotura* bildumean.

1987 Bilintx saria jaso zuen. Geroago sari hauek irabazi ditu narratiban: Bapore (1993, 2003, 2007 eta 2009), Maria Azkue susperraldia (1990), Txomin Aguirre (1999, 2000 eta 2002), Torio Alzaga saria (2002), BBK saria (2004), etab.

Gazteentzako zenbait libururen itzultzailea izan da: Bat Pat, Voltaire kaleko abenturak, A Elkartea... Eta berak idatzitako *Erregina Bahitua* obra bat gaztelaniara itzuli da. Aitor Arana esperantorako duen zaletasunagatik nabarmendu da. 1990ean hizkuntza hori euskaratik ikasteko metodoa publikatu zuen, *Esperantoa ikasgai* titulukoa.

Horrez gain, euskalkien alorreko hiztegi gintzan ere lan egiten du. Gehienbat, ekialdeko nafarrera aztertu du, zaraitzua nagusiki. Euskalkiei buruzko zenbait ikerkuntzaren egilea da.

Sarrera

Maitasun Sua Aitor Aranak idatzitako liburua da. Bakarrik aurkitu daiteke euskaraz. 2013an argitaratu zuten lehenengo aldiz, Ibaizabal da argitaletxea eta Ekin liburu bildumaren barne dago. Liburu honek ez du arrakasta handirik izan. Izan ere, Aranak ez du saririk jaso liburu honekin eta oraingoz edizio bakarra atera da.

Garai desberdinetan baina herri berean (Gares) gertatutako bi istorio kontatzen dira, haien artean antzekotasun asko baina, aldi berean, ezberdintasun asko dituztenak. Horietako bat 1345ean sutan erre zituzten bi judu homosexualen istorioa da, antzinako eskuizkribu batean idatzirik dagoena. Dokumentu hori Ekainek aurkitzen du 2010ean, eta bere maitasun istorioa ere kontatzen da.

Bi garai horietan jendearen pentsatzeko moduak konparatzen dira. Horretarako, istorioak tartekatuz doaz. Bi narratzaile nagusi daude: Ekain eta Juze. Lehenengo pertsonan egiten dituzte narrazioak, euren ikuspegi pertsonala adierazteko. Ez dute lexiko konplikatu erabiltzen, askotan lagunartekoa baizik, eta sarritan elkarrizketak, metaforak, konparazioak... erabiltzen dituzte.

Maitasun sua

Kokapena

Nafarroako Gares herrian garai desberdinetan gertatzen diren bi maitasun-istorio tartekatzen dira liburuan. Kontakizunak zenbait eguneko iraupena du. Alde batetik, 2010ean Ekainek bizi izandako esperientziak kontatzen dira. Beste alde batetik, Ekainek aurkitutako liburuxkan beste bi garai desberdinetako narrazioak agertzen dira: bata 1725ean idatzitakoa eta bestea 1345ean idatzitakoa. 1345ko narrazioaren arabera, Juze eta Samuel gazte homosexualak Erriberriko presondegira heldu behar dira eta horretarako, Mendigorria, Artaxoa eta Tafalla herriak zeharkatzen dituzte.

Gaia

Maitasunaren indarra, homosexualitatearen jazarpena eta gai horren inguruko gizartearen onarpen falta dira gehien lantzen diren gaiak. Gainera, gizartean eta pertsonen pentsatzeko moduan egondako aurrerapena azaltzen da, Erdi Aroko eta gaur eguneko gay gazte batzuen egoerak konparatuz.

Argumentua

Ekainek bere herriko historiari buruzko lan bat egin behar du. Udaletxean liburu bila dabilela, eskuizkribu zahar bat aurkitu du, 1345eko Juzeren istorioa kontatzen duena. Juze eta Samuel sutan erre zituzten XIV. mendean, homosexualak izateagatik zigortuta.

Maitasun-istorio hunkigarri hori irakurtzean, Ekain konturatu da bere egoerarekin antzekotasun handiak dituela. Izan ere, bera ere homosexuala da eta Jose Luis maite du. Bere lagun minak, Montsek, lagunduta eta maitasunaren indarrak jabeturik, bere bizitzako erabakirik garrantzitsuena hartuko du eta Jose Luisi maite duela esango dio. Honek berarekin egon nahi duela erantzun eta euren maitasun-istorio propioa biziko dute, zoriontsu.

Gertaera nagusiak

- Ikasturtea ondo bukatzeko eta Historia gainditzeko, Ekainek bere herriari buruzko lana egin behar zuen. Udaletxera joan zen informazio bila, eta istripu baten ondorioz zoruan zulo bat egin zuen. Han, antzinako gutun batzuk eta liburuxka bat aurkitu zituen. Liburuxkaren lehen orrialdeetan 1725ean Juan Beltza eskribauak idatzitako oharra agertzen zen.
- Ohar horren arabera, Juan Beltzaren semeak juduen alfabetoan idatzitako liburua bat aurkitu zuen. Liburuan, 1345ean Garesen bizi izandako bi juduren maitasun historia azaltzen zen. Testua gure alfabetoan kopiatu eta ondo gorde zuen. Juzeren historia hau zen:

- Juze eta Samuel elkar maite zuten bi judu ziren, eta kartzelan preso zeuden homosexualak izateagatik. Pedrok, Juzeren lagunak, papera eta tinta eramaten zizkion ziegara, bere egunerokoa idatz zezan. Juzeri ahalik eta gehien laguntzen ahalegintzen zen. Denbora gutxi geratzen zitzaien epaiketa baino lehen, eta horretarako Erriberrira eraman behar zituzten. Pedrok bi gazteei eskapatzen laguntzeko plan bat prestatu zuen.
- Baina Pedrok ezin izan zien alde egiten lagundu, eta bi gazteak Erriberrirantz abiatu ziren, beste aukerarik ez zutelako. Euren azken gaua biek batera igaro zuten kartzelan.
- Pedro Mosse bisitatzera joan zen, eta gertatutakoaren berri eman zion: gazteei eskapatzen laguntzeko plana gauzatzen ahalegindu zen, baina ezin izan zuen, Iruñera joan behar izan zuelako lan bat egitera. Horregatik, Erriberrira joan zen eta Juze eta Samuelekin hitz egitea lortu zuen. Edari pozoitsu bat eman zien eta horrekin erdi lokaturik geratu ziren eta su eman zietenean ez zuten minik sentitu.
- Hori entzun ondoren, Mosse konturatu zen Pedrok Juze maite zuela, eta horregatik hainbeste ahalegindu zela bera salbatzen.
- Montse eta Ekain Juzek eta Samuelek lehenengo aldiz elkar musukatu zuten lekura joan ziren. Han zeudela, Montsek musu bat eman zion Ekaini eta oheratu egin ziren. Baina Ekain deseroso sentitzen hasi zen eta bere etxera joan zen korrika, Montseri kasurik egin gabe.
- Hurrengo egunean, Montserekin hitz egitea erabaki zuen, eta honek barkamena eskatu zion. Neskak esan zion bisexuala zela uste zuela eta horregatik musukatu zuela. Baina Ekainek erantzun zion berak Jose Luis maite zuela, eta Montsek onartu egin zuen.
- Ekain Jose Luisekin hitz egitera ausartu zen eta maite zuela esan zion. Honek berarekin egon nahi zuela aitortu zion, eta musukatu egin ziren, zoriontsu.

Egituraketa

Eleberri honek egituraketa berezia du. Bi istorio desberdin kontaktzen dira, erlazioa dutenak. Ekainek aurkitzen duen liburuxkan hau jartzen du:

“Gure jaunaren 1345 garren urteko Garesko bi maitale judu errugaberen historia, haietako batek bere eskuz eta juduen alfabetoan eskribiturik, eta gure Jaunaren 1725eko urtean herri bereko eskribauak alfabeto latinoan jarria, oraingo eta geroko kristau argien ulermenerako.” (38)

Liburu osoa 13 kapitulutan banatuta dago, eta bakoitzaren hasieran narratzailea nor den jartzen du.

Kapitulu batzuk Ekainen egunerokoaren zatiak dira:

“Garesen, 2010eko ekainaren 15ean. Ekainen egunerokotik.” (9)

Kapitulu batean Juan Beltza eskribauak idatzitako oharra agertzen da:

“Garesen, 1725eko ekainean. Juan Beltza eskribauaren oharra.” (41)

Gainerakoak Juzeren idatziaren zatiak dira:

“Garesen, 1345eko ekainean. Juze Abolfazaren idatzitik.” (49)

Nobelan zehar gaur eguneko eta Erdi Aroko istorioak tartekatuz doaz, baina istorio bakoitzaren barruan ordena kronologikoan azaltzen dira gertakizunak gehienetan. Hala ere, zenbaitetan flash-backa erabiltzen dute, iraganean gertatu zitzaiena kontatzeko. Horren adibide da Juzek bere haurtzaroan bizi izandako pasadizo hau kontaktzen duenean:

“Gure Aljamako Mosse Ebenayon errabino zaharrak –ongi gogoratzen dut– Garesko auzo juduko ene etxe ondoko kalean geldiarazi ninduen. Bederatzi urte izango nituen. (...) Horrelako oroitzapen samurrak orain, hamazazpi urte ditudanean eta jaiotzen ikusi ninduen Gares herriko ziega heze honetan preso nagoenean, gozagarri eta lagungarri zaizkit.” (52)

Pertsonaiak

Protagonistak Ekain eta Juze dira, istorioaren narratzaileak direlako. Baina aipatzekoak dira Montse, Jose Luis, Juan Beltza, Samuel, Pedro eta Mosse.

Ekain

Istorioren protagonista eta narratzailea da. Hamazazpi urteko mutil bakartia da eta ikaskideekin harremanak izateko zailtasunak ditu, askotan burla egiten diotelako. Bere lagun mina Montse da, eta berarengana jotzen du arazoak dituenenean. Homosexuala da eta Jose Luis maite du, baina hasieran ez da berari hori esatera ausartzen. Bere amari gay dela esateko asmoa du, baina inoiz ez du momentu egokia aurkitzen. Hilerrian egotea gustatzen zaio, bakarrik eta lasai egoteko. Belarrietako entzungailuak jarrita ibiltzen da beti, bere gustuko musika entzuten: *Berri Txarrak*, *Esne Beltza*, Lady Gaga... Ekainek 1345ean Juze Abolfazak idatzitako kontakizunak aurkitzen ditu.

Montse

Ekainen lagun mina da, eta ongi baino hobeto ezagutzen du. Oso neska ederra da. Ekaini historiako lana egiten laguntzen dio eta biek batera Juzeren idatzia irakurtzen dute. Eleberriaren hasieran Ekainekin harreman on bat bakarrik duela dirudi, baina amaieran esaten du mutila maite duela. Ekain bisexuala dela uste duenez, musukatu egiten du eta gutxi gorabehera berarekin oheratzera behartzen du. Hala ere, Ekainek berarekin egon nahi ez duela esaten dionean onartu egiten du.

Jose Luis

Ekainen ikastetxe berean ikasten du. Kirolari trebea da, lasterka egiten eta igeri egiten batez ere. Ez du alkoholik edaten eta janari garbia jaten saiatzen da. Ez zaio musika asko gustatzen, baina noizbehinka dantzalekura joaten da. Ile motz beltza eta itxura klasikoa du. Bere familiak terrenoak dauzka herrian, eta aitari soroetan lan egiten laguntzeko prest dago beti. Betidanik herrikoak ziren familietako batean jaioa izanik, ikasketak amaitzean nekazaritzaren eta lanbide modernoagoen arteko aukera egin beharko du. Liburuan Ekainek askotan aipatzen du Jose Luis eta harenganako sentimenduak kontatzen ditu. Nobelaren amaieran gay dela eta berarekin egon nahi duela esaten dio Ekaini.

Juan Beltza

Eleberriko narratzaileetako bat da. 1725ean Iruñean ikasketak egindako eskribaua da. Oso jokabide garrantzitsua du, Juzek idatzitako testuak zaharberritu zituelako, ondo gordetzeko. Juduen alfabetotik gurera itzuli zuen idazkia. Hala ere, liburu osoan berak idatzitako kapitulu bakar bat dago.

Juze Abolfaza

Nobelako narratzaileetako bat da. Garesen 1345. urtean bizi zen judu homosexuala eta ile beltzekoa zen. Irakurtzea eta idaztea asko gustatzen zitzaion, eta eguneroko bat idatzi zuen, bere esperientziak kontatuz. Samuel Nahaman maite zuen eta horregatik kartzelatu zuten. Geroago Erriberrin su eman zioten, jendearen aurrean. Berari esker, Juan Beltzak eta Ekainek ezagutu zituzten garai horretan berari eta Samueli egindako bihozgabekeriak.

Samuel Nahaman

Juzeren betiko laguna zen, bera ere judu homosexuala. Garesko familia judurik behartsueneko seme bakarra zen. Argala zen, baina ez zen herriko beste juduak bezalakoak: ilehoria eta begi urdinak zituen. Juze maite zuen eta berarekin batera erre zuten.

Pedro

Juzeren lagun mina zen txikitatik. Oso jokabide ona izan zuen bere lagunarekin, Juze kartzelatzen dutenean ahal duen guztia egiten duelako bera salbatzeko. Nobelaren azken zatian esaten du Juze maite duela.

Mosse

Juzek bederatzi urte zituenean ezagutu zuten elkar eta idazkera zer zen irakatsi zion. Juze kartzelatuta egon zen bitartean bisitatzera joan zen eta Juzeren idatzian kapitulu bat idatzi zuen bera hil ondoren.

Baliabideak

Lehen aipatu bezala, nobela honek hiru narratzaile desberdin dauzka. Juan Beltza eskribauaren ohar txiki bat baino ez da agertzen liburu osoan, baina Ekainek eta Juzek beren egunerokoetan idatzitakoa ageri da, eta bakoitzak bere esperientziak kontatuz egiten du narrazioa. Gehienetan orainaldia eta lehenengo pertsona erabiltzen dute. Horrela, haien sentimenduak eta pentsamenduak agerian uzten dira, Ekainek bere egunerokoan idatzitako zati honetan adibidez:

“Berriro etorri naiz hilerrira. Ez dago hau bezalako lekurik bakarrik eta lasai egoteko. Hemen ikastetxeko ergel horiek ahaz ditzaket. Hilobi, lore sorta eta zuhaitz artean, hostoak eta ene belarriak ferekatzen ditu haizeak, eta oso gogoko dut horietan egiten duen bar-bar hots lasaigarria.” (9)

15 urte inguruko gazteei zuzenduta dago, eta beraz lexikoa ez da bereziki zaila. Pertsonaien arteko elkarrizketa ugari agertzen dira, nobelari arintasuna ematen diotenak. Lagunarteko hizkera erabiltzen dute askotan, Ekainen eta Montseren arteko elkarrizketetan batez ere. Izan ere, oso harreman ona dute eta elkarrengan konfiantza handia dutela nabaritzen da:

“—Mekasuen, zer bero! -esan du gero, inguruko galsoroetara begira-. Geroago, herrira itzultzean, izozki bat hartzera gonbidatuko nauzu, bero honekin hilerriko aldapa luzea igoarazi didazulako. Ale!

Mekasuen eta *Ale!* oso modu berezian esaten ditu Montsek. Zakar samar, beharbada, eta grazia egiten dit. *Ez zera!*, esaten dit hori aipatzen diodanean, Bestela, zuk bezala esan behar dut *Ai, jauna!* haserretzen naizenean?” (15)

Deskribapen ugari egiten ditu, bai pertsonaiena eta bai lekuena. Biak ere xehetasun ugariarekin:

“Ingurura begiratu nuen. Leihoa gustatu zitzaidan, gure etxekoa baino handiagoa baitzen. Bi armairu alde banatan eta mahai zaharra erdian, liburuak eta paperak nonahi. Leku bitxia begitandu zitzaidan, inondik ere.” (51)

METAFORAK, KONPARAZIOAK, ESAMOLDEAK...

“Gero eskerrak eman, eta tximistan airean harturik bezala atera naiz udaletxetik.” (38)

“Usoak hegan baino azkarrago joan naiz herriko kaleetan barrena, Montseren etxerantz.” (39)

“Laster hilko den gizon zaharra besterik ez naiz, eta bizitzan behin eta berriz baieztatu ahal izan dut erlijioak erakusten digun egiarik handiena dela mundu hau *malkoz beteriko ibarra* dela...” (91)

“...eta negarrez hasi da nire aurrean bortitz, barneko sentimendu handi bat gorputzetik indartsu atera nahi balitzaio bezala.” (92)

“Zaldiaren lau hanka arinak gutxiegi ziren nire bihotzaren estutasuna arrapaladan ere arintzeko.” (94)

“...hostoak eta ene belarriak ferekatzen ditu haizeak.” (9)

Iritzia

Maitasun Sua hamabost urte inguruko gazteentzat liburu egokia da. Testua nahiko arina eta irakurterraza da, elkarrizketa ugari eta pertsonaia gutxi agertzen direlako eta lexiko arrunta duelako.

Mezu interesgarria du. Homosexualitatearen adibidea hartuta, edozein alderditan ezberdina denarenganako gizartearen onarpen falta adierazten da. Protagonistak gay dira, eta horrek arazoak ekartzen dizkie etengabe. Horiei aurre egiteko ez dute amore eman behar, eta maite duten pertsonarekin egoteko ahal duten guztia egin behar dute, besteen kritikei kasurik egin gabe.

Gainera, gai horri dagokionez, gizartean eta pertsonen pentsatzeko moduan egondako aurrerapena azaltzen da, Erdi Aroko eta gaur eguneko gazte batzuen egoerak konparatuz. XIV. mendean homosexualitatea delitutzat hartzen zen, eta heriotzarekin zigortzen zen. Gaur egun, berriz, tolerantzia gehiago dago eta

eskubidea dugu gure sexu bereko pertsonekin egoteko (herrialde garatuetan behintzat). Ekainek hau idazten du bere egunerokoan:

“Bitxia zela pentsatu dut: XXI. mendean foru poliziek altxor baten moduan babestu dute Juzeren eta Samuelen historia jasotzen duen liburuxka, eta XIV.ean horien aurrekoak izan ziren zaindarien bi juduak Erriberrira bidean bortitz eraman zituzten, gero, han epaitu eta exekutatzeko. Bi gaixo haiek horren berri balute!” (114)

Erljioari dagokionez ere, aurreratze handia egon dela islatzen da. Izan ere, gaur egun erlijioak irakasten dizkigun balioak onak dira, baina garai batean txarto erabiltzen zen eta bere benetako balioen kontrakoak ziren arauak aplikatzen zituzten. Hona hemen Mossek Juzeri kontatzen diona, erlijioa jatorrian bihozgabekeria horien alde ez zegoela adierazteko:

“...aski segurua da Samuel eta zu epaitu ondoren berehala hilko zaituztetela. Ez litzateke lehen aldia izango. Egin duzuen oso ekintza larritzat jotzen da gaur egun, baina hori ez da beti horrela izan...Idatzi Sakratuetan idatzirik geratu denez.”

Bestalde, adiskidetasuna eta lagun onen balioa garrantzitsuak dira nobelan. Alde batetik, Ekaintzat Montse ezinbesteko euskarria da. Berarekin konpartitzen ditu bere pentsamendu guztiak eta laguntza behar duenean berarengana jotzen du. Ekainek hau erantzuten du Montsek bere egunerokoa irakurtzen uzteko eskatzen dionean:

“—Zertarako? Hemen jartzen duena baino askoz gehiago dakizu nitaz.” (15)

Bestalde, Juze eta Pedroren arteko harremana oso estua da, euren arteko elkarrizketa honetan islatzen den moduan:

“—Pedro Etxeberri –esan diot hunkiturik–, Samuelentzat eta biontzat egiazko adiskidea zara.

-Ez ahaztu gero, Juze -esan dit, begiak heze-, zu beti ona izan zarela herrian nirekin. Badakizu zer dioten apaizek eta errabinoek: on eginak on gehiago dakarrela.”

Oso deigarria gertatzen da, hasieran adiskidetasun estua ziruditen harreman horiek, azkenean maitasun bihurtzen direla, Montse eta Pedroren kasuetan. Montsek esaldi hau esaten du, Ekain maite duela aitortzen duenean:

“...laster jakin dut kontua ez dela edo beltza edo zuria, gris tonu ugari dagoela bi kolore horien artean.” (104)

Gai desberdin asko lantzen dira nobelan zehar, baina esan beharra dago idazleak ez duela horietan asko sakontzen, eta planteatzen diren arazoei irtenbidea aurkitzeko ez duela buelta askorik ematen. Istorioaren hasieran Ekainek zera esaten du: bere bi kezka nagusiak direla amari gay dela aitortzea eta Jose Luisi maite duela esatea. Baina azkenean, arazo larriak ziruditen horiek momentu batean konpontzen dira: amak bere semea gay dela arazorik gabe onartzen du eta Jose Luisek berarekin egon nahi duela aitortzen dio. Horrek sinpleegia egiten du liburua eta pertsonaiek naturaltasunik gabe jokatzearagiten du.

Laburbilduz, *Maitasun Sua* eleberriak mezu interesgarria du eta gazteentzako egokiak diren gaiak jorratzen ditu. Hala ere, aurreikusten den amaiera sinplea duenez, atsekabetuta uzten du irakurlea. Liburu baten amaierak garrantzi handia du: irakurritakoaren erremate ona izan behar du, irakurleak nobelaren oroitzapen ona gordetzeko. Eleberri honek, agian, ez du hori lortu.

Bibliografia eta webgrafia

Maitasun sua, Aitor Arana. Ibaizabal

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/18623>

<http://www.compartelibros.com/autor/aitor-arana/1>

<http://www.galtzagorri.org/euskara/idazleak/aitor-arana-luzuriaga>

http://eu.wikipedia.org/wiki/Aitor_Arana

<http://eibz.educacion.navarra.es/blogak/liburutegia/2014/06/maitasun-sua/>

http://www.atalak.eus/nola_egiten_da